


ESTASI


ESTASI ERABILTZAILEENTZAKO KOMIKI INFORMATIBOA



ailaket!!

MDMA suspergarri gisa eragiten duen sustantzia dugu. Normalki pilula, kapsula edota hauts moduan(kristala, mdma) aurkitu dezakegu. Itxuraz berdinak diruditen bi pastillak(logoa, kolorea eta tamaina dela) edukian MDMA kopuru ezberdina izatea posible da. Ez gehiegi fidatu markekin.

**"DORAEMON" AGERTZEN DEN KARRATU HAUEK
ETA USO BOROBIKIL HAUEN ARTEAN ZEIN ALDE
DAGOEN BADAKIZU?**



Zirrara eragiteko gutxieneko kopurua 30-40 mg dira eta 75-125 mgrekin erabateko efektua sortzen ahal da pertsona gehienongan. Efektu hori baldintzatuko duten faktoreak iragan bizipenak, itxaropen eta motibazioa, nortasuna, sexua, pisua, sustantziarekiko tolerantzia eta sentiberatasuna, gorputz eta gogo-aldarte, dosia, lekua eta konpainia izan daitezke. Neurria desberdina izaten da pertsona bakoitzarentzat.

**UFA! PRIMERAKO ZEPELDIA
HARRAPATU DUT!**

**BA! AHOHANDI HUTSA ZARA,
NIK ZUK HAINA SARTU DUT
ETA LASAI ASKO
NAGO!**



MDMA hartzeko esperientziaren albo-ondoriorik ohikoenak: jateko gogorik eza, masailezurreko tentsioa, orekaren aztoramena, gorputzeko tenperaturaren eta arteri- presioaren igoera, urdurtasuna, aho lehortzea eta izerdia dira. Hogeita lau ordutara buruko mina, nekea, amiltze psikologikoa, muskuluetako mina ere etor daitezke.

ATZO



GAUR



BIHAR



Segida batean erabiltzeak depresio tarteak izatera eraman gaitzake, konzentratzeko zailtasuna izatera, eta inmunitate sistema eta sistema endokrinoa asaldatu dezake. Erabiltzeko modua bera (gaupasa, gehiegizko ahalegina, nahasketak, baraurik egotea, deshidratazioa) sustantziaren beraren ondorioak baino kaltegarriagoa izan daiteke.

**BA NIK LAU SARTU DITUT... ETA EZ NAGO
INOREKIN GAITZEZI! ONEZ ONERA NAGO!**

BAI ONGI ERE...

**GEZURTI NIRI?
BEGIZ IBILI
EDO IZARRAK
KENDUKO
DIZKIZUT!**



MDMAz benetan gozatzeko eta gura ez ditugun efektuak gutxitzeko hilean behin baino ez kontsumitzea gomendatzen da.

EPEL-EPEL NABIL ZER BAINO GELDIGORRAGO. PUSKA BAT JAN NAHI DUZU?



Honako gaixotasunekin kontraindikazio ugari dauzka: bihotz-arritmia, arazo kardiobaskularrak, presio arterial neurrigabea, glaukoma, gibelego eta giltzurruneko gutxiegitasuna, diabetesa edo hipogluzemia, desoreka psikologiko eta psikiatrikoak. Kasu haurdunak eta bularreko haurra dutenekin.

TRISTE XAMAR NABIL AZKENALDIAN... ALAITZEKO MDMA BEHIN BANAN PROBATUKO BANU, ZE IRUDITZEN?

PRIMERAN, EGARRI ZAUDENEN POLBOROI LITROA HARTZEA BEZALATSU



MDMAk emozio esperientzia onuragarriak sortzen ditu, komunikazioa erraztu egiten du (pentsamendu eta sentimenduak azaltzerakoan), enpatia hobetu (besteek azaldu nahi digutena ulertzea), autoestimua, zorientasuna, euforia, eta deshinezioa handiagotzen ditu, baita ukimena eta entzumena ere. Beherakada datorrela gorputzeko eta buruko nekeak erakutsiko digu, eta zenbaitetan hartu aurretik genuen gogo-aldarte makalagoa.

**BASERRIKO INTXAURRAK LAKET BADITUZUE
LAGUNDU IREKITZEN**

TIRA ! EMAIZKIOZU KIDEARI EA

**HORTZ-IKARA
HORREKIN
HAUSTEN
DITUE**



MDMAren efektua sentitzeko 30-60 minutu igaro beharko dira. Indar handieneko faseak 2-3 ordu iraungo du eta handik lautik sei ordutara zirrara desagertzen joanen da. Dosi osagarriekin esperientzia luzatzen ahal da, baina zenbat eta dosi gehiago hartu, efektu suspergarri horiek (speedaren antzekoak) gero eta nabariago egingo dira.

**LUR JOTA NAGO, GORPUTZAK GOITIK BEHERA JOKO DIT
BIHOTZA ERORIKO ZAIDALA!**

**ZEOZER HARTUKO
ZENUEN JATEKO**

**BAI ZERA! ASTEBURU
OSOA DARAMAT
BARAURIK!**



Gutziz gomendagarria da pilularen konposizioa ezagutzea. Zerrenda zabalak dakartzaten web orriak badaude (www.ailaket.com, www.energycontrol.com) eta merkatuan badira pilulak MDMA duen edo ez eta zein neurritan aztertzeko analizatzaileak.

"KAKALARDO GORRIA" IZAN DA NIK INOIZ HARTU DUDAN PILULARIK ONENA



PUTZONTZI HORI,
ANLIZATU ETA GERO,
ZURI GUSTATZEN
ZAIZUNA EZ DA PILLA,
AZUKREHATSUA DUEN
ANTIESTAMINIKOA DA
LAKET DUZUNA

Gogoratu gorputza ez dela gauza bi egunez jarraian eta baraurik dantzan ibiltzeko. Ura, zukuak edo edari isotonikoak edan ez deshidratatzeko eta tarteka atseden hartu. Horrela, batzuetan gerta daitekeen beroaldia zartadan (gorputzeko temperatura bortizki igotzea) saihestu daiteke.

PLATANO DOZENA ETA ANAKARDO BERREHUN GRAMO ERAMANGO DITUT



IXOO! IKUSI
AL DUZU AMAK
NOLA
ASTEBURUKO
PARRANDARI
USAIN
EMAN DION?

Bizipenak paregabekoak eta errepikaezinen izaten dira, hauen arrakasta faktore askok baldintzatuko dute: sustantzia, gorputz eta gogo-aldarte, ingurunea, lagunartea... Etzazula inola ahalean zoragarria izan zen gau hura gogora ekarri.

EZ DIRA MOTELAK PILULA HAUEK, BAINA PRAXKUREN URTEBETETZE JAIAN PROBATUTAKO HURA BAI IZAN ZELA MUNDIALA, EZ AL DUZU USTE?




NIK USTE DUDANA, PRAXKUREN JAI AITATZEN EZ DUZUN EGUNEAN PASAKO DUDALA NIK PILULEKIN PRIMERAN, TXATXU HORI!

Ez gidatu kotxerik MDMA hartu baduzu, sexuan beti kondoia jarri eta ez ahaztu MDMA hartzeko edota ez hartzeko erabakia ZUK duzula, ez beste inork.

HARTZAZU OSORIK HEMEN HONDARREN BAT GELDITU ZAIZU-ETA

ZUK AURREA HARTU NIK BIDEA BALKOITIK NEURTUKO DUT, ERGELA!



ailaket!!

Ai laket!!-en kontsumo arduratsuaren eta erabilerak eragindako arriskuen ikuspuntutik autogestioaren askotariko sustantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu.

"Drogak kontsumitu, bai ala ez" pertsona helduek informatuta eta askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste dugu. Ai laket!!-en asmoa ez da erabaki horren gainean eragitea, beste honakoa baizik: informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eman, hartara kontsumitzekotan, ahalik eta zentzutasun elementu gehien biltzen dituen hausnarketaren emaitza izan dadin.



www.ailaket.com - ailaket@ailaket.com
Ai Laket!! Tel: 945 23 15 60
Jesusen Zerbiltzarien kalea 40. znb
01001 Vitoria-Gasteiz (Araba)

argitaratua:

ailaket!!

laguntzaileak:



egilea:

mauro Entrialgo